

KRONIKA > MAUTHAUSENGO KONTZENTRAZIO ESPARRUKO SARRASKIA

DENBORAREN HAIZE BOLADEK ERAMAN EZIN IZAN DITUZTEN OROITZAPENAK

Nagore BELASTEGI

HISTORIAREN GAINEAN LURRA BOTA NAHI IZAN ZUTEN, FAXISMOAREN ONDORIOZ HILDAKOEN GORPUEN GAINEAN BEZALA. BAINA EGIA BETI AZALERA ATERATZEN DA ETA HURA EZ DAGO ISILTZERIK. ORAINGOAN, MAUTHAUSENGO KONTZENTRAZIO ESPARRUAN IZAN ZIREN VILLABONAKO HERRITARREI OMENALDIA EGITEKO TXANDA IZAN DA.

Villabonako Erreboteko plazaren erdian dagoen ikurrinaren azpian zuri-beltzean erretratutako gizonetako baten irudia jarri zuten atzokoan. Adolfo Lozano Olazabal zen, Villabonan bertan 1897ko irailaren 27an jaio. Ogibidez irakaslea bazen ere, armadan gelditzea erabaki zuten soldaduska egin ostean.

Pixkanaka graduaziorik igotzen joan zen. 1936ko maiatzean Concepcion Bengoarekin ezkondu zen, eta amaren izen bera duen alaba bakarra izan zuten. Haurrak ez zuen aita ezagutu: Concepcion jaio aurretik 1936ko gerra hasi zen, eta, Errepublikaren alde egin zuen Lozano atxilotu eta Mauthausengo (Austria) kontzentrazio esparrura eraman zuten. Bertara heldu aurretik Saint Cyprien, Gurs, Treves eta Gusenetik ere pasatu zen. 1941eko azaroaren 7an hil zen Mauthausenen, antza biritakako pneumoniak jota. Heriotza data eta arrazoia Mauthausengo artxibo ofizialean jasota badaude ere, kontuan izan behar da kontzentrazio esparruetan askotan gaizki erregistratzen zirela horrelako datuok.

Gaur egun Concepcion Lozano Adolfoaren alaba makulu baten laguntzaz ibiltzen den emakume sendo eta dotorea da. Villabonako plazako ikurrinaren azpiko argazkiari samurtasunez begiratzen zion atzokoan, eta, aita inoiz besarkatzeko aukerarik izan ez bazuen ere, sekulako maitasuna diola erakutsi zuen. Eskuan muxu eman eta

«Gosea, izua, nekea, tortura... erabiltzen zituzten erregimenaren kontra zegoen edonor zigortzeko, betiere euren 'legearen' barruan»

Concepcion Lozano Bengoa argazki zaharrei begira, seme-alabak ondoan dituela.
Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

argazkia ukitzen zuen behin eta berriro. Plazan ez zegoen jende askorik: antolatzaileak, kazetari batzuk, Concepcion Lozano, bere seme-alabak eta biloba. Hala-ko batean, plazako txoko batetik jendetza gerturatzen hasi zen askotariko banderak erakutsiz. «Ene, errepublikarra!», bota zuten andreak begiak zabal-zabalik bandera gorri, hori eta gorria ikustean. Une hunkigarria izan zen beretzat.

Egun garbia baina haizetsua izan zen atzokoa Villabonan. Haizeak banderak gogor astintzen zituen. Iraganean ere izan ziren haize bolada indartsuekin dena lurraz eta hautsaz estaltzen saiatu zirenak. Gertatutako sarraskiak ezkutatu nahi izan zituztenak ere izan ziren. Garai berriekin batera, baina, jakinmina piztu zen herraren ondorioz hil edo desagertuen ondorengo artean, biziraun zuten zaharrek kontaktzen zituzten sufrimenduak argitu nahi zituztenak martxan jarri ziren, eta, ondorioz, gaur egun eurak dira mundu osoan zehar, pixkanaka, memoriaren alde borrokan ari direnak.

Aipatutakoaren adibide dira Aritza eta La Ilusión kolektiboetako kideak, atzoko ekitaldia mimos prestatu dutenak. Lehenik Esti Amenabarrok hitz egin zuen Aritzaren izenean. «Hona-koa egia, justizia eta onarpeneren bidean pauso bat besterik ez da. Asko kosta zaigu Concepcione-kin topo egitea eta oso hunkigarria izan da. Adolfoaren alaba da eta berak ezagutu ez zuen aita elkartu gaitu, eta, orain, guk Adolfoaren inguruan gehiago ezagutzeko aukera dugu. Gaur [atzo] hemen gaude Francoren aliatuen kontzentrazio esparruetan izan zirenei omenaldia egiteko, biziraute hutsagatik sufritu zutenak, nahiz eta batzuek hori ere lortu ez zuten. Hori da Adolfoaren kasua, Bigarren Errepublikako komandantea, irakaslea ogibidez, euskalduna eta Villabonako bizilaguna. Dantza hau zuretzako da, Concepcion», esan zuen, eta arkupeetatik sei gazte atera ziren dantza eder bat eskaintzeko.

Omendua bera makulua askatu eta txaloka hasten lehena izan zen. Ostean, Amaia Agirre bertsolariak bertsoa eskaini zion, ez unean asmatutakoa bai-

